

Iñaki Murua

Mark Cavendish!

Txirrindularitzaz ez, amabirjinari buruzko idatzi batek sortu aztoramenaz ari nahiko nuke, zuen eta fiskalen baime-nik gabe ere.

Nik ez nuke amabirjinari buruz hark mamiturik idatziko; agian, ez litzaidake aterako. Baina behatzari mailukada bat ematen deskuidatzen naizenean, hori edo handiagokak botatzeko kapaz naiz. Eta zein ez? Asko bai behintzat. Gainera, batzuk, disimulatzen saiatzen gara: *mekaben zotz; kaben la mar; la ostibiri; kaben la ostra...*

Egunero darabiltzagun maldizioetako bat gehiago da. Beno, ez dakit maldiziora iristen den; nik uste, zer esaten dugun ez dakigula, oharkabea, ahoskatzen dugun arrosario horietako bat dela. Ohiturazko makulua edo dena delakoa. Ni, zerak harritzen nau, nola liteke fiskal jaun bat –hainbesteko detailez– kaka egiten ari den bati beha egotea? Gainera, egilearen ustez, darion hori sortzez garbia baldin bada, ongarrri borobila izango da bada? Ai, baina agian, berak ez dakiela, satanen ukituzko (edo uzkituzko) mezu ezkutuak dira eta hor zegoen fiskal jauna, lorik egin gabe, gure bakea zaintzen, kirats guztien gainetik, *Baquè* beroa hartuz.

Gizarte honetan –hala deitzerik bada-go behintzat– aurki, maldizioak ere legezko eta legez kanpoko sailkatuko dizkigute. Pertsonak bezalaxe. Edo zartako bat ematearen pareko ekintza modura: mahai gainea eman daiteke; segurtasunagatik ere bai; baita mehatxu gisan erabili ere, eragiteko. Baina edozeinek ez. Baimenduek soilik.

Baina badaude modu sofistikatuagoak gauzak esateko / egiteko. Adibidez, emakume euskaldun eta abertzaleei buruz, interneten hara eta hona ibili den artikulu bat, idazlea omen den ezagun batek gazteleraz idatzia. Han dioenez, emakume horiek ipurtandi, mando antzeko, okelatsu, errapedun e. a. dira. Hori ez da iraintzea! Hori ere gazteleraz argitaratua zen bada; ulertuko zuen fiskal jaunak, ezta? Ez zegoen itzulpen akatsen arazorik, gaizkiulertuetarako. Ez zuen kiratsa usaindu; haizeak desbideratu non-bait. Edo beste eskutik zetorrelako edo...

A, ez da horregatik, fiskalak esku hartze-ko emakumeak hilda edo hiltzear edo elizak



DANI BLANCO

birjina aitortua izan behar du. Emakume bat bakarra al da bertutetsua ala beste denek ere ama, lagun, langile... izateko dohainak dituzte? Ama eta birjina izan omen zen hark hainbeste argi emandako elizak, zer egin zuen, Pio XII Aita Santuak nazismoa publikoki onartu zuenean, 60 milioi hildako eragin zituen II. Mundu Gerra ostean? Zer egin du elizak AEBetan apaizek eginiko sexu gehiegikeriak publikoki epai ez ditza-ten 2.000 milioi dolar ordainduta, isilik gordetzeagatik? Eta Espainiako gerran, milioi bat hildako inguru eragin zituen “Santa Cruzada”n parte ez hartzeagatik eta errepublikanoen alde aritzea leporatuta, euskaldunok eskomulgatu gintuenean? Zer egin du? Kaka burutik behera, alargun, ama (amabirjina), aita (aitasantu), seme-alaba, senide eta gainerakoei.

Eta hori ez bada, zeinek idazten duenari begiratzen dio fiskal jaunak, edo zeinek esan duenari eta orduan, denak berdin dio!

«Espainiako hainbat irratik eta beste hainbat esatarik euskarari buruz nahiz euskaldunoi buruz esandakoa, esaten ari direna eta esango dutena ez al da burutik behera kaka egitea? Legeak dioena batzuekin era batera eta beste batzuekin nahierara aplikatzea, zer da?»

“Nire mespretxurik nabarmenena merezi du lehendakariak” esatea ez al da burutik behera kaka egitea? Espainiako hainbat irratik eta beste hainbat esatarik euskarari buruz nahiz euskaldunoi buruz esandakoa, esaten ari direna eta esango dutena ez al da burutik behera kaka egitea? Legeak dioena batzuekin era batera eta beste batzuekin nahierara aplikatzea, zer da?

Noiz hasi behar du fiskala inori burutik behera kaka egiteko ere aukerarik ez dutenekin kezkatzen eta justizia aplikatzen? Munduan dauden hainbat eta hainbat gosez hiltzera kondenaturekin, jaten ez dutelako kakarik egiterik ez dutenekin? ■